# EKITALDIAK– INGURUMEN-IRIZPIDE SINPLIFIKATUAK

## Prozedura ireki bidez kontratatzeko eta lehiaketa bidez esleitzeko ingurumen-irizpideak

| Oinarrizko maila | Maila aurreratua |
|---|---|
| **KONTRATUAREN XEDEA:** | **KONTRATUAREN XEDEA:** |
| Xedea ekitaldi baterako idazkaritza teknikoa kontratatzea da. Enpresa adjudikaziodunak eta honek azpikontratatutako enpresek, ekitaldia antolatzeko, garatzeko eta amaitzeko etapa guztietan, plegu honetan jasota dauden ingurumen-irizpide guztiak kontuan izan behar dituzte. Jardueraren helburua ekitaldiaren ingurumen eragina murriztea da. Horretarako, energia eta ur gutxiago kontsumituko da, zabor gutxiago sortuko da eta jardueran kontsumitutako produktuen fabrikazioarekin lotutako bestelako eraginak ere murriztu beharko dira.<br><br>Nekazaritza ekologikoko produktuak erabiliko diren ekitaldi baterako catering-enpresa bat kontratatzea da helburua, baita ahalik eta hondakin gutxien sortzea eta ingurumenarekiko hobeak diren prozedura eta praktikak erabiltzea ere.<br><br>Helburua hauxe da: ekitaldi bateko komunikazio-materiala inprimatuko duen enpresa bat kontratatzea, ingurumenarekiko errespetu handiagoa bermatuz, bai zerbitzua emateari dagokionez bai amaierako produktuei dagokienez ere. | Xedea ekitaldi baterako idazkaritza teknikoa kontratatzea da. Enpresa adjudikaziodunak eta honek azpikontratatutako enpresek, ekitaldia antolatzeko, garatzeko eta amaitzeko etapa guztietan, plegu honetan jasota dauden ingurumen-irizpide guztiak kontuan izan behar dituzte. Jardueraren helburua ekitaldiaren ingurumen eragina murriztea da. Horretarako, energia eta ur gutxiago kontsumituko da, zabor gutxiago sortuko da eta jardueran kontsumitutako produktuen fabrikazioarekin lotutako bestelako eraginak ere murriztu beharko dira.<br><br>Nekazaritza ekologikoko produktuak erabiliko diren ekitaldi baterako catering-enpresa bat kontratatzea da helburua, baita ahalik eta hondakin gutxien sortzea eta ingurumenarekiko hobeak diren prozedura eta praktikak erabiltzea ere.<br><br>Helburua hauxe da: ekitaldi bateko komunikazio-materiala inprimatuko duen enpresa bat kontratatzea, ingurumenarekiko errespetu handiagoa bermatuz, bai zerbitzua emateari dagokionez bai amaierako produktuei dagokienez ere. |

| ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK (nahitaez betetzekoak): | ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK (nahitaez betetzekoak): |
|---|---|
| **Hotela/barrutia/ekitaldi-aretoak hautatzea**<br><br>1. Ekitaldiaren lekura garraio publikoaren bidez erraz iritsi beharko da.<br><br>***Egiaztapena:*** *Agiri hauetako baten bat aurkeztuko beharko da: 2.a eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br><br>2. Ekitaldi-lekuaren inguruetan hotelak izatea beharrezkoa da, hizlariek eta/edo parte-hartzaileek ostatu hartzeko.<br><br>***Egiaztapena:*** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 2.a eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* | **Hotela/barrutia/ekitaldi-aretoak hautatzea**<br><br>1. Ekitaldiaren lekura garraio publikoaren bidez erraz iritsi beharko da.<br><br>***Egiaztapena:*** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 2.a eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br><br>2. Ekitaldi-lekuaren inguruetan hotelak izatea beharrezkoa da, hizlariek eta/edo parte-hartzaileek ostatu hartzeko.<br><br>***Egiaztapena:*** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 2.a eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br><br>3. Areto eta gune guztiek klimatizazio- eta argiztapen-sistema independenteak izan behar dituzte, aretotik bertatik erregulatzeko.<br><br>***Egiaztapena:*** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 2.a eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |
| **Mugikortasun-neurriak**<br><br>3. Garraio publikoaren hurbileneko geltokiak edo geralekuak seinaleztatu eta jakinarazi beharko dira.<br><br>***Egiaztapena:*** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 2. eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* | **Mugikortasun-neurriak**<br><br>4. Hainbat lekualdatze egiteko autobus-zerbitzua kontratatzen bada, ibilgailuek, gutxienez, EURO 5 isurien estandarra bete beharko dute eta beren funtzioetarako dimentsionatuta egon beharko dute.<br><br>***Egiaztapena:*** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 1.goa eta 2.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br><br>5. Garraio publikoaren hurbileneko geltokiak edo geralekuak seinaleztatu eta jakinarazi beharko dira<br><br>***Egiaztapena:*** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 2.a eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |

| | |
|---|---|
| **Dekoratzeko materiala**<br>4. Dekorazio-elementuen kopurua minimizatu beharko da, eta elementu berrerabiliei eta berrerabilgarriei lehentasuna emango zaie; horrez gain, ingurumen-inpaktu txikiena dutenak aukeratuko dira.<br>***Egiaztapena:*** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 1. eta 2.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* | **Dekoratzeko materiala**<br>6. Dekorazio-elementuen kopurua minimizatu beharko da, eta elementu berrerabiliei eta berrerabilgarriei lehentasuna emango zaie; horrez gain, ingurumen-inpaktu txikiena dutenak aukeratuko dira.<br>***Egiaztapena:*** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 1. eta 2.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |
| **Jardueran erabiltzeko materialak**<br>5. Dosierraren edukia ahalik eta laburrena izango da (programa, ebaluazio-orria...); paperezko aurkezpenak ez dira hor sartuko. Aurkezpenak webgunean jarri beharko dira parte-hartzaileen eskura, interesdunek handik deskargatu ditzaten.<br>***Egiaztapena:*** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 2.a eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br>6. Entregatutako materialek (txostenak, boligrafoak, etab.) ingurumen-irizpideren bat jarraitu beharko dute (paper/plastiko birziklatua, plastiko biodegradagarria, FSC edo PEFC papera edo zura, etab.).<br>***Egiaztapena:*** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 2. eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br>**Catering-zerbitzua kontratatzea**<br>7. Janari-beharra kontuz planifikatu beharko da, beharrezkoak ez diren hondakinak ez sortzeko. Izena emateko formularioaren bidez edo jarduerak irauten duen bitartean harreran izena ematea eskatuz egin daiteke. | **Ekitaldian erabiliko diren materialak**<br>7. Dosierraren edukia ahalik eta laburrena izango da (programa, ebaluazio-orria...); paperezko aurkezpenak ez dira hor sartuko. Aurkezpenak webgunean jarri beharko dira parte-hartzaileen eskura, interesdunek handik deskargatu ditzaten.<br>***Egiaztapena:*** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 2.a eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br>8. Entregatutako materialek (txostenak, boligrafoak, etab.) ingurumen-irizpideren bat jarraitu beharko dute (paper/plastiko birziklatua, plastiko biodegradagarria, FSC edo PEFC papera edo zura, etab.).<br>***Egiaztapena:*** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 2.a eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br>**Catering-zerbitzua kontratatzea**<br>9. Janari-beharra kontuz planifikatu beharko da, beharrezkoak ez diren hondakinak ez sortzeko. Izena emateko formularioaren bidez edo jarduerak irauten duen bitartean harreran izena ematea eskatuz egin daiteke. |

| | |
|---|---|
| **Egiaztapena:** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 2.a eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br>(*) Horrez gain, elikadura puntualerako garatutako ingurumen-irizpideak erreferentzia gisa hartu ahal izango dira, esaterako, nekazaritza ekologikoko eta/edo urte-sasoiko produktuen gutxieneko ehuneko bat eskaintzea, botilaratu gabeko ura erabiltzea... | **Egiaztapena:** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 2.a eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br>(*) Horrez gain, elikadura puntualerako garatutako ingurumen-irizpideak erreferentzia gisa hartu ahal izango dira, esaterako, nekazaritza ekologikoko eta/edo urte-sasoiko produktuen gutxieneko ehuneko bat eskaintzea, botilaratu gabeko ura erabiltzea... |
| **KONTRATUA GAUZATZEA (nahitaez betetzekoa):** | **KONTRATUA GAUZATZEA (nahitaez betetzekoa):** |
| 1. Ekitaldia egiteko gune bat alokatu edo erreserbatu behar bada, gune horrek ingurumen-kudeaketarako sistema eta politika bat izan beharko ditu edo ingurumen-kudeaketako neurriak ezarri direla egiaztatu beharko du, ebidentzia argiekin.<br>**Egiaztapena:** *Gunearen ingurumen-kudeaketako sistemaren ziurtagiria aurkeztu beharko da edo ingurumena kudeatzeko neurriak ezarri direla adierazten duen idatzizko ebidentzia.*<br>2. Lana egiten denean sortzen den dokumentazio guztia orrialdeen bi aldeetatik inprimatuko da eta paper birziklatuan.<br>Ekitaldiaren idazkaritza teknikoak adierazleak kalkulatzeko zehazten diren datu guztiak jaso beharko ditu.<br>**Egiaztapena:** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 2.a eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br>3. Ekitaldia egiten den bitartean, sortzen diren hondakinak behar bezala bereiziko dira eta ondoren ondo kudeatuko direla bermatuko da.<br>**Egiaztapena:** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 2.a eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* | 1. Ekitaldia egiteko hotel bateko logelak eta/edo gune bat alokatu edo erreserbatu behar badira, hotelak edo guneak ingurumen-kudeaketarako sistema eta politika bat izan beharko ditu edo ingurumen-kudeaketako neurriak ezarri direla egiaztatu beharko du, ebidentzia argiekin.<br>**Egiaztapena:** *Gunearen/hotelaren ingurumen-kudeaketako sistemaren ziurtagiria aurkeztu beharko da edo ingurumena kudeatzeko neurriak ezarri direla adierazten duen idatzizko ebidentzia.*<br>2. Catering bat kontratatu behar bada, catering horrek ingurumen-kudeaketarako sistema eta politika bat izan beharko ditu edo alderdi hauetan ingurumen-kudeaketako neurriak ezarri direla egiaztatu beharko du, ebidentzia argiekin:<br>- Sasoiko produktuak, organikoak, transgenikoak ez direnak... hautatzea<br>- Hondakinen gaikako kudeaketa<br>- Energia eta ur gutxiago kontsumitzen duten ekipamenduak<br>**Egiaztapena:** *Enpresaren ingurumen-kudeaketako sistemaren ziurtagiria aurkeztu beharko da edo ingurumena kudeatzeko neurriak ezarri direla adierazten duen idatzizko ebidentzia.* |

| | |
|---|---|
| | 3. Lana egiten denean sortzen den dokumentazio guztia orrialdeen bi aldeetatik inprimatuko da eta paper birziklatuan.<br>Ekitaldiaren idazkaritza teknikoak adierazleak kalkulatzeko zehazten diren datu guztiak jaso beharko ditu.<br>***Egiaztapena:*** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 2.a eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br>4. Ekitaldia egiten den bitartean, sortzen diren hondakinak behar bezala bereiziko dira eta ondoren ondo kudeatuko direla bermatuko da.<br>***Egiaztapena:*** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 2.a eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |
| **ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK:** | **ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK:** |
| **Hotela/barrutia/ekitaldi-aretoak hautatzea**<br>1. Areto eta gune guztiek aretotik bertatik erregulatzeko klimatizazio- eta argiztapen-sistema independenteak izatea balioetsiko da (gehienez 4 puntu).<br>***Egiaztapena:*** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 2.a eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br>**Mugikortasun neurri gehigarriak**<br>2. Hainbat lekualdatze egiteko autobus-zerbitzua kontratatzen bada, ibilgailuek, gutxienez, EURP 5 isurien estandarra betetzea eta beren funtzioetarako dimentsionatuta egotea balioetsiko da (gehienez 4 puntu).<br>*Egiaztapena: Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 1.goa eta 2.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* | **Catering-zerbitzua kontratatzea**<br>1. Nekazaritza ekologikoko edo urte-sasoiko produktuen ehuneko handiagoak (eurotan) eskaintzea balioetsiko da (gehienez 4 puntu).<br>***Egiaztapena:*** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 2.a eta 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).*<br>**Beste ingurumen hobekuntza batzuk**<br>2. Ekitaldiaren gauzatzean ingurumen-inpaktua gutxitzea ekarriko duen bestelako edozein jarduketa balioetsiko da, betiere, behar bezala frogatzen bada (gehienez 4 puntu).<br>***Egiaztapena:*** *Berme hauetakoren bat aurkeztuko beharko da: 3.a (ikusi egiaztapen-dokumentuak).* |

| EGIAZTAPEN-DOKUMENTUAK (*): | | | |
|---|---|---|---|
| 1. *Fitxa teknikoa* | | 3. *Proposamenaren deskribapen teknikoa* | |
| 2. *Deklarazioa* | | | |

*(*) Horiek dira baloratuko den espezifikazio edo irizpide bakoitzaren betetzea modu argienean bermatzen duten ingurumen-ziurtagiriak eta ekoetiketak edota informazioa jaso dezakeen dokumentazioa, baina egiaztapen-dokumentazio baliokidea ere onartuko da, finkatutako irizpideak betetzen direla argiro frogatzen badute.*

**OHARRAK:**

*Dokumentu honetan garatutako irizpideez gain, interesgarria izan daiteke atal hauekin lotutako eskakizun zehatzagoak barne hartzea, baita idazkaritza teknikoa hautatzearekin, autobusen enpresa aukeratzearekin, ekitaldiaren hedapenarekin eta prestakuntza/informazioarekin zerikusia duten beste batzuk ere.*

*Informazio gehiago nahi izanez gero,* ***www.ihobe.eus*** ***webguneko Erosketa Publiko Berdearen atala*** *kontsulta dezakezu edo Ihoberekin harremanetan jar zaitezke, bide hauetatik:*

- *Tel.: 94 423 07 43*
- *Helbide elektronikoa: compra.publica@ihobe.eus*